

EXILIOA ZEN

Nagore Amondorain

Arantzazu, 16 urte

Ez naiz hirugarren munduko beste biktima bat, ez naiz palestinar bat lurralde okupatueta..., soilik amorrua senti dezaket ohartzean. Arratseko zortziak enparantzako ordularian ttanttaka eta hirugarren solairu batetik jendeari so eginez, bihotz-muinak eskuetan estuturik idazten dut. Ez dut jarraitzeko adorerik.

Iheslarien bagoiak, jada, urruti entzuten dira, etsipena daramaten trenetan ere egiten da ametsik noizbehinka. Baina nire ametsetan infernu grisa eta aldioro hotza darabilt, infernu pusketa bat bisitazen dut soilik, ituginak masailetan behera erori zaizkidan unera.

Neguak gogorazten dit bertakoa ez naizela; neguak gogorazten dit egunez ere gaua dela. Lehen eguna ongi igaro dut, ez da udazkena beste teko epela, baina... bakartia, uholde hilgarria, ekaitza. Eskaileretatik jaistean, kontrolik gabeko perpausak darabiltzate emakumeek, «egun grisa eta inoraezean etxean». Kale kantoira hurbildu eta betiko senaren hotsa, hezetasuna ugari inguruan, noski negua izaki... Kaleak arrotz zaidan zerbait gogorazteko baino balio ez didanez, berriro etxera itzultzen naiz. Helduaz batera telefonoak jotzen du. Hala ere, haserre nagoelako ez dut erantzuten. Neguarekin batera identitate berri bat, bizileku berri bat eta ohitura berri batzuek probarazi dizki-

date. Konturatzeke, udak, herria, familia, lagunak eta emaztegaia atzean utzirik aldegin dit.

Berriro ere txirrin hotsa. Oraingoan telefonoa hartzeko zirrara sentitu dut. Nire ama izan da. Gaur amaren diskurtsoari inoiz baino usain kirastuagoa hartu diot. Malkoak pilatzen dira neguko izaki bakarti baten boteetan gainezka, baina hainbeste amu irentsi ondoren, zertaz elikatzen gara? Egunetan pilaturiko ugerrak deseroso senti arazten nau.

Nire herrian egoera antzekoetan utzi ditut lagunak, nik ihes egitea lortu dudalarik. Hasiera batean ezezagun egiten zitzaidan Euskal Etxeko jendea, nire lagun bilakatu da. Aldioro pentsatzen dut hau guztia: belarrira zaunka egiten dizun zakur amorrarazi batenganako amorrua dela, baina gure herriaz gehiegikeriak egiten dituztenetaz suertatzen da.

Neguak gogorazten dit bertakoa ez naizela. Mila bagoitan barrena zabaldu dira iheslariak. Elurrak hartu ditu trenaren beirak, bihotzaren beirak. Etxeak ez du inongo berogailurik. Jakina, mailegu txikiko etxe bat baino ez baita, oraindik atean «Renfe» jartzen duelarik.

Hotzetan sukarra sentitzen dut eta berriro udara heltzeko desiota nago. Zoko ilunenean jarririk nago, burua eustez ere arro. Bizimodu iluna beti izango dugu hemendik aurrera eta arrotzak direnen giro itogarrian barneratuko gara. Mila pentsamendu tinkaturen aterbean, nigarrez ur naiteke, biharko xede dudakorretan doi-doia bermatuz.

Gaur goizez, denetarik apur bat duten denda

horietako batera joan naiz: olibak, tomate helduak, ogia eta edari pixka bat erosi dut. Ahaztu baino lehen zigarroz ondo hornitu nahi izan naiz eta kobratzen duen neskaren papera heldutakoan atzerantz egin dut. Zer pentsatuko zuten ingurukoek? Neska hitz egiten ari zitzaidan eta ni, nire ama hizkuntza den horretan ezin izan naiz moldatu. Beraz, hasperen batez, behar adina diru patrikeratik ateratzen ahalegindu naiz, neska isil araziz. 50 libera inguru edukiko nituen patrikeran eta denak eman behar izan dizkiot.

Diruz ez nenbilen ondo. Egun bi barru diru bila joan beharko nuen Euskal Etxera. Kaleetan ez zebilen inor, hemen ohitura zenez.

Gauerdian Euskal Etxean besteekin batera afalduko dudanez, pozarren jartzen ahalegintzen naiz. Dagoeneko, beraien antzeko helburuak ditut, mugaz bestaldeko ikusmena itzultzea. Heldu berria naiz honetara eta ohartzeke nago bertako gizarte itxurosoaz. Saint Paul kalea zeharkatzea baino ez dut izaten egunero lagun horiekin topatzeko eta besteak beste gure herri ukatu, bahitu eta txikiiaz hitz egiteko. Sutegian bezala kez estaltzen ditugu gure gorputzak. Mattinek kalerantzako bidean laguntzen dit haizea hartzera, Euskal Etxearen sarrerara. Irten bezain laster, bi aurpegi arraro begistatu ditugu. Gu susmorik txikienean salatzeke gai izan daitezkenaren ikaraz, berriro barnera sartu gara.

Neguak gogorazten dit bertakoa ez naizela eta bertan espetxeak daudela. Pentsatzeari emanez gero, badirudi metropolis hegiko beste bat gehiago

naizela emaztegaiaren oihuak gogoraziz: «etzazula inoiz egin ihes, itxaropenean betiko ahaztuak izango gera azkenean».

Neguak gogorazten dit exilioan nagoela eta exiliora itzuli nautela. Ezkilek negua daramate; ezkilek negua dakarte. Mugak aipatzen ditugu hemen sarri eta beste batzutan mugarik ez dagoela pentsatuz esnatzen naiz, erdibiderik ez dagoela, maite nauzu ala ez nauzu maite. Nire itxura ikusirik, bururatu zait hamaika era ezberdin daudela exiliatu bat deskribatzeko; lohitua, negarrez, ihesi, zigarrero bat erretzen, gauez, egunez...

Distantzia gabe bizitzen ikasi dugu, onerako bakarretan, txarrerako zenbaitetan, nola gerta. Ohartzea.

Exilioa negua da.